

da. Ikasketa lanen artean beta txiki batzuek artuaz egiña. Ez euseran, ez Jakindurian, ez da trebe. Itz auek bakar-bakarrik nola ala-

bait batutako apunte batzuek dira. Nere itzak Jakinduria edo euskera zauritu baldin ba'dute, barkatu, aurretik damutua nago ta.

YAKIN'I ETA...

Orixe

YAKIN'i. Iru illabetez beitik ortzaz gora egon beharra ukan dut ezer ezin egiñez. Aurrera, osasunaren iabe danak esan beharko. Albait, ez niza ixilduko. Gure Aldizkariak ezagutuko ahal dute, oraingoz kasu gutxiago egiten ba'diet.

ETA... ZENBAIT EUSKALZALERI: *-la, -na*. Auzitxo bakarra gaurkoz. Iru gerta-agi bereizten deuz garbi gure Gramatikak: 1) *-la=que ya es*; 2) *-na=lo que ya es*; 3) *ba'dan (ala ez)=si es (o no es)*. «Ba-dakit etorri dana» ori sasi-kume da. Batek, eta ez da edozein, Euskal-Ikasbid: bat argitara emana baitu, au esan dit: «zuk ere ez'ekin *-n* erabilten duzu, ez *-l*». Bai, baiña nik ez dut artzen *-na'tik*, au da, bigarrenetik; bai irugarrenetik: ez du esan etorriko danik (etorriko dan ala ez). Beraz *-na* ori nAspide da.

Altube aipatu didate Erderismos liburuan. Ez daukat nerekin; baiña nire arrazoiaren aurka ioan gabe, beste arrazoi bat atera dezake, alegia. errian oso sarturik dagola, ta gaurgero ez ditekela kendu; eta beste izkuntzetan gerta oi dana, oker sarturiko itzak eta esaerak ere, lege berri baten bidez gainzuritzen dirala: *el imperio del uso*. Beste arrazoirik ez diteke, nere ustez, atera. Nik au erantzuten dut: *error corrigitur ubi deprehenditur*, au da, arkitzen dan une berantuzendu bedi okerra. Oraindik erriak, Gipuzkoan beñipin, *-la* esaten *deu*, eta Bizkai'ko moda orri, Bizkaia'n ere oitura iatorra egotziko dlogu. Galdekizun edo *inquisitivo* atzerik doala, bai, geienez ala esan oi dute, baiñan aurretik dala, ez, nire denboran beintzat. «Peru etorri dala esan dabe», ta ez «Peru etorri dana esan dabe». Ez al da esaten Bizkaian dana dala=*sea lo que fuere*. Ez diteke esan dana dana.

Giputz batek esan didanez, Lekuona'k ere bai omen du erru gauza ontan. «Siñisten det Jesukristo... jaio zana, il zana, &», ipiñi zulako.

Erria erri ta autorEk autore, oraingo idazleEk *-la* orri eutsi behar lioteke Gramatika arauz.

Gure idazle gazte batzuk, autorez Arretara iotzen dute babes billa. Zeintzuk eta zenbat aldiz erabili dute *-na* sasiko ori? Gaur berton zenbat idazle bikaiñek erabilten dute *-na* itsusi ori? Etzait iduri, ez Luis Mitxelena'k, ez Altube'k berak ere asko darabiltenik.

Erria, erria! -Ongi mintzo danEn, bai, erria. Baiñan erria mozkortzen ba'da, gu ez giten mozkortu euskera gisakoa idaztean.

Adiskide autorEk, adiskide Altube, adiskide Lekuona, adiskide erria; baiñan AdiskidEgo EGIA.